

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1322

423/2023 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Begoña Juarros Aristegui andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Obstetria eta Ginekologiako arlo klinikoan, ospitalez kanpoko asistentzia eta obstetricia-eremuan, Atal Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen irailaren 13ko 1387/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Obstetria eta Ginekologiako arlo klinikoan, ospitalez kanpoko asistentzia eta obstetria-eremuan, Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2023 urtarrilaren 2ko EHAA 1. zk. eta 2023ko urtarrilaren 9ko BOE 7 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Begoña Juarros Aristegui andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Barrualde-Galdakaoko ESiko Obstetria eta Ginekologiako arlo klinikoan, ospitalez kanpoko asistentzia eta obstetria-eremuan, Atal Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28.artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Begoña Juarros Aristegui andrea Osakidetzako Barrualde-Galdakaoko ESiko Obstetria eta Ginekologiako arlo klinikoan, ospitalez kanpoko asistentzia eta obstetria-eremuan, Atal Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluan hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2023ko martxoaren 7a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

2023ko martxoaren 15a, asteazkena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAr argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2023ko martxoaren 6a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.